



2017ko uztailea eta abenduko aparteko ordainsariak

Egun on, lankide.

Atzo Enpresak jakinarazi bezala, Eusko Jaurlaritzaren erabakiz, 2012tik zor diguten aparteko ordainsariaren % 50a ordainduko digute. Bazen garaia!

Langile finko eta LEP arteko kontratua duten hezitzaileei horrela ordainduko zaie:

- ✓ Ekaineko nominarekin batera, 2012ko aparteko ordainsariaren %25a. Uztaileko lehen egunetan, berriz, 2017ko abenduko aparteko ordainsariaren %50a.
- ✓ Abenduko nominarekin batera, aldiz, 2017ko abenduko aparteko ordainsariaren gainontzeko % 50a jasoko dugu. Urtarrileko lehenengo astean, orduan, 2012tik zor diguten azken % 25a.
- ✓ Ordezkapen kontratuak betetzen ari zareten langileek normaltasunez jasoko dituzue ekainean eta abenduan edo finikitoekin.

Modu honetara, 2012ko abenduko ordainsaria osotasunean ordainduta geratuko litzateke (ia 5 urte beranduago!!!). Izan ere, gogorarazten dizuegu 2015eko apirilean % 25 bat ordaindu zigutela eta beste % 25a 2016ko apirilean jaso genuela.

Erabaki honekin gure diruarekin jolasteari uztea exijitzen diegu bai Eusko Jaurlaritzari eta baita Haurreskolak Partzuergoari ere. Dagokiguna dagokigunean eman, beti!!

STEILAS 2017-06-23



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus